

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Landa eta hiri ondasun higiezin gaineko zergaren 2020ko erroldak

Ondasun higiezin gaineko zergaren Foru Arauak 21.2 artikuluan xedatutakoa betez, landa eta hiri ondasun higiezin gaineko zergaren 2020ko erroldak jendaurrean jartzen dira udal idazkaritzan, hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, epe horretan aztertu eta egoki jotzen diren erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Epe hori eten egiten da 2020ko ekainaren 1era arte, Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 18ko 2/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekreturen arabera.

Aldi berean, ondasun higiezin gaineko zerga bilduko dela iragartzen da.

2020ko ekitaldiko landa eta hiri ondasun higiezin gaineko zergaren lehen ehuneko berrogeita hamar borondatez ordaintzeko epea 2020ko abuztuaren 15era arte luzatzea erabaki da eta kuota horren bigarren ehuneko berrogeita hamarra 2020ko azaroan eta abenduan bilduko da.

Era berean, ordainketa helbideratuta duten pertsonen jakinarazten zaie 2020ko uztailaren 3an kobratuko zaiela kuotaren lehen berrogeita hamarra.

Zerga horren eraginpeko zergadunek udalaren diruzaintzan egin ahal izango dute ordainketa, adierazitako epean, 10:00etatik 14:00etara.

Era berean, zergadunei gogorarazten zaie ordainketa banku edo aurrezki kutxetan helbideratu ahal dutela.

Epe hori igaro ondoren, administrazioko premiamenduko betearazte bideari emango zaio hasiera, eta dagokion errekargua aplikatuko da (6/2005 Foru Arau Orokorra, otsailaren 28koa, Arabako Tributuena, 28. artikulua).

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Agurain, 2020ko maiatzaren 27a

Alkatea

ERNESTO SAINZ LANCHARES